

Ezaugarrien agerraldiak denboran eta espazioan

Iñaki Camino

1. Hizkuntza-aldaerak kurri: Lapurdiko aldaerak Garaziko bertsu eta liburuetan

Baxenabartarrei inguruko zein eskualdetako euskara duten gogoko galdeginez gero, ez da harrigarri izaten Garaziko euskara kalitatez jantzirik sentitzen dutela entzutea, baina halaz ere, idazle garaztarren testuetara mendebaleragoko hizkuntza-aldaerak sartu dira azken aspaldian. Garazi ibarrean dago Ezterenzubi, Baxenabarreko hego-ekialdean, mugakide du Hego Euskal Herria, Nafarroa Garaia. Garaziren mendebaleko saihetsean Baigorri ibarra dago, eta hegoaldean, berriz, Aezkoa ibarra; ekialdera Zaraitzu eta Xiberoa ditu, eta iparraldean Baxenabarreko Oztibarre; halaber, Garazitik ezker, goitixeago, Arberoa ibarra kokatzen da, Iholdi alderdi hori.

Hogeita lau urte zituen Mañex Etxamendi ezterenzubiarrak 1897an soldadogoaz bertsu idazten ari zelarik; haren bi ahapaldi hautatu ditut langaia aurkezteko:

Zorteak deitu izan gintuen
beraz, adixkide onak
soldadogoaren egiteko
oro elgarren lagunak
bai eta laster anaiak gare
hemen guziz eskualdunak
aberats ala pobre izanik
elgarrez estimu onak.

Bai Xuberotik, bai Lapurditik
eta Baxenabarretik
etorri izan gira guziak
hunarat Eskual-Herritik
bizi berri bat ere kausitzen
hunara jinez geroztik
pena guziak jasanen tugu
Frantziaren ona gatik.

Berrogeita bederatzi urte izan behar zuen Jan Piarre Arbelbidek 1890.ean *Erlisioea: Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrenak* liburua argitaratu zuelarik. Donibane-Garazi ondoko Zaro herri ttipian sortu zen 1841ean Arbelbide kalonjea eta honela dio haren liburuko pasarte batek: *harria zare zu, eta harri horren gainean asentatuko dut ene Eliza, eta ifernuko indar guziak ez zaizko sekulan nausituko* (186).

XIX. mendearen bukaeran Baxenabarreko hego-ekialdean zazpi urteko aldeaz idatzi zuten bi garaztarren euskaran sintoma bera ageri da, idatzizko tradizioaren eragina eta indarra. XVII. mendetik harat aldaera literarioen artean Lapurdi itsas-hegiko euskararen moldeak nagusituz joanik. Niort-en sortu zen Edouard Bourciez irakasleak Garaziko eskoletako errient-errientsen bidez haur prodigoaren parabola bildu zuenean ere, Duzunaritze-Sarasketako testuan *cherrieri, mahatseri* ageri da (Aurrekoetxea & Videgain 2004: 196), baina *-eri* berri hori Lapurdikoa da, ez da Garazikoa, Etxepareren garaitik orain artean *-er* ibili dute garaztarrek. Bourciezek 1894an Garazin bildu itzulpenak ez dira beti Garaziko euskara erakusten ari.¹ Duny-Pétre sortzez donibandarraren euskal idazkietan ere, Lapurdiko euskara da haren *mendieri urbil* postposizioko datibo atzizkiaren pluraleko *-eri* aldaera. Baina idatzizko eragin honek ez zion hizkuntza-geografiaren alderdiari bakarrik eragiten, aldaeratik aldaerara gertatzen zen aldea denborari ere bazegokiokelako, ondoko 2.4. §-n ikusiko dugunez.

¹ Uharten Estéot errientak dakarren *uhaitz* orduko herritarren elea ote zen? Egungo Garazin *erreka* bildu dut (Altzieta, Gamarte, Mendibe). Ibarrolako Salaberrik 1856an darabilen *uhaitz* izan daiteke Oztibarreko.

2. *izan-en gare eta zare adizkiak*

Etxamendik soldadogoaz 1897an idatzi bertsuan *anaiak gare* ageri da *izan* aditzean eta baita *etorri izan gira guziak* ere. Garaziko ene datu-bildumetan ez da *etorri* hitza agertu, *jin* elea da ene grabazioetan ageri dena eta garaztarrek darabiltena; halaxe adierazi didate Ahatsan eta Gamarten egin ditudan inkestetan ere, herrikoa *jin* dela, nahiz litekeena den, beste lekuko ahatsar batek erabilera zenbaitetan *etorri* ere inoiz esatea, lapurtarrek inoiz aetzekin ikasia duelako, Kalifornian beste eskualdeetako euskaldunekin hartu-emanan ukan duelako, bilobek ikastolatik edo euskara batutik etxera ekarri edo etxera datu biltzera sartu zaion ikertzailearen aitzinean aldaera hori erabiltzeari egoki iritzi diolako.

Jo dezagun orain aditz laguntzaileetara, idatzizko tradizioak Garazira dakarrena aurkezteko eta bertako erabileratik bereizteko. Lapurdikoa da *izan* aditz saileko *gare* aldaera, ez da Garazin ageri. Etxepareren garaitik hona, *girade* eta *zirade* aldaera pleonastiko zahar idatzien gora-behera alderdi batera utzirik, *gira* edo *zira* dira garaztarrek hondarreko aldiaren ibili dituzten aldaerak, baina goitiko adibideetan ikusi dugunez, Etxamendik *gare* dakar eta Arbelbidek *zare*. Garazikoak ez, Lapurdiko itsas-hegian eta herrialde horretako hego-ekialdean baliatzen diren adizkiak dira *gare* eta *zare*, beharbada berranalisi batek eragin berrikuntzak. Lapurdiko testu zaharretan badira *gara*, *zara* aldaera zaharrak, eman dezagun, Leizarraga, Materra, edo Axularrenetan,² baina hiru idazle horietarik inor ez zen itsas-hegian sortu. 1635eko *Devocino escvarra*-ren idazle Joanes Haranburu ere saratarra zatekeen (Villasante 1979: 72) eta *gara*, *zara* saila zerabilen, baina aldiz, Etxeberri Ziburukoak XVII. gizaldiaren hirugarren hamarkadan *gare*, *zare* dakartza eta baita ondotik Haranederrek, Pouvreaux, Argaiñaratzek, Etxeberri Dorrek, Aranbillagak, Gazteluzarrek, Urtek edo Xuriok ere. Ñabardura geografikoetan sobera sartu gabe, adieraz dezadan itsas-hegian (Urruñako Zokoan, Ziburun, Donibane-Lohizunen, Getarian) eta barnealdeko Senperen eta Saran baliatzen direla adizkiok, nahiz eta egun *gai*, *zai* soilduagoak ere badabiltzan Lapurdin, Donibane-Lohizunetik iparrerat. Aldiz, hegorat *ge*, *ze* laburrak ditugu Biriatur, Hendaian, Urruñan, Azkainen... Bonaparte printzearen garaian hedadura zuten *gare*, *zare* adizkiek, entzuten ziren Basusarrin, Ahetzen edo Ainhoan ere eta Hermann Urtelek Arrangoitzen dakar *zare* (1916-17). Alta, *gare* eta *zare* kultura idatziaren eta Elizaren liburuen bidez eta eraginez Ipar Euskal Herri barrenean gairi bidaiatzen ziharduten aldaerak dira. Aldaera horiek ez zituzten Xiberoko mendiak gairitu: oro har, lehengo denboretan Lapurdin ahozko euskaran erabiltzen ziren aldaerak ez ziren Xiberoko idatzizko tradizioa sartu.

3. Izenordainen genitiboak

3.1. Harenak ez ziren Lapurdiko aldaerak idazteaz landa, Arbelbide zaroarraren euskara idatziak badu beste berezitasun geolinguistikiko bat: *harri horren gainean asentatuko dut ene Eliza* dioenean (1890: 186), ene ustez bere-berea duen ezaugarri bat itzalpean uzten ari da idazlea, nahiz Arbelbidek ez zuen sortzezko ohitura guztiz ito:

² Behin darabil urdazubiarrak *gare: iragaitçaz gare hemen* (240). Idazketa-hutsa ote da, ala berrikuntzaren agerraldi bat, Axularri ihes egin ziona? Ez jakin, baina gerora Saran ibili dira honelako aldaera berriak, nahiz ez horiek bakarrik. Aniztasuneko ibilera gora-beheratsua da Sarakoa: 1776an Darroguy [Darroki?] izeneko idazkari batek *gare* dakar bazka aferez diharduen gutun batean (Zudaire 1968: 380) eta *gare* idatzi zuen Bernardo Etchetto alkateak 1781eko beste batean (382), baina 1780ko beste gutun batean *gara* ageri da bi aldiz (381). 1799. urteko beste batek *gara* dakar bi aldiz (Ondarra 1981: 478), eta datu horiekiko koherentzia Bonapartek *gae* & *gaa* eta *zae* & *zaa* bildu zituen. Schuchardtek *zaa* bildu zuen 1887ko udan eta Vinsonek 1895ean *zare*. Hermann Urtelek *ze* dakar (1916-17) eta 1922-25ko *Erikizundi*-ak *gare*. *EAEL*-n (1981) ez *gare* *ganen* dator eta Koldo Artolak *ga* & *za* bildu ditu.

Jainko ona, othoi zeure izen handia gatik athera nezazu neure etsayen eskutarik dakar liburu berean, zeure eta neure aldaera hanpatuak (192). Arbelbidek Linschmann-Aresti legea betetzen duen besterik da, baina erabiltzen du aldaera hanpatua. Orduko Frantzisko Laphitze irisartarrak ere *neure* aldaera dakar, izan ere, Ipar Euskal Herriko idatzizko tradizio zaharrea izenordain genitibo hanpatuak ageri dira, baina denboraren buruan aldaera horiek galduz joan ziren Ipar Euskal Herriko eskualde anitzetan.

3.2. Izenordainen genitibo hanpatuen sistema bakoitzaren barrenean berrikuntzak agertuz joan dira han eta hemen. Nafarroa Garaiketik abiatuz gero, Beriainen *geuren* analogikoaren *-n* berria da lekuko, gerora *eu* → *au* aldaketaren bitartez hego-nafarreran *gauren* aldaera nagusi bilakatu dena, eta gainera, Beriainek *geuren* nahiz *geren* (1621: 17v) monoptongatua dakartza, baina behin baizik ez dakar *geren* Beriainek: *gueren becatuac* (1621: 17v). *Tratado*-an hogeita bat aldiz dakar *geuren* eta dotrinan ere beste hainbestetan. Gipuzkoari hurbil, Nafarroa Garaiko iparraldeko Aresoko paternoster zaharrea ere *gere* dago. Nafarroa Garaiko 1729ko predikua *geure* dakar, baina Estellerriko Frantzisko Elizalde 1735ean *gueuren* (5) nahiz *gueren* (87), bi aldaerak darabiltza. Gipuzkoan ere, XVII. mendearan hasieran, Azpeitiko abadesa errezildarraren 1622ko gutunak lekuko, badakigu monoptongazioa gertatu dela: *guerequin* dakar (Sarasola 1983: 124), nahiz badiren *çeure* (124) & *ceure* (125) ere. Gipuzkoakoa izateko itxura duen beste gutun batean *nerre* dugu, Sarasolak aldaera honen idatzizko lehen agerralditzat dakarrena (129-130). Lekukotasun idatziei esker dakigu Lapurdiko itsas hegian ere XVII-an eta batez ere XVIII-an bitarte fonikoko aldi hori izan zela, *nerre*, *gere*, *zere* aldaera monoptongatuak erabili zirela; cf. Materraren *guere* (1623: 275), orrialde berean *ceure* osoago duena edo XVIII-ko Xurionen *nerre* (1978 [1788]: 218) eta *cere* (216) aldaerak. Ez dezagun ahantz Lapurdiko itsas-hegia, Beriainen Iruñerria eta Gipuzkoa auzo direla eta harremanean bizi izan direla: XVII. menderako hiru herrialdeetan ageri da *eu* → *e* monoptongazioa.

XIX. mendeko Lapurdiko euskara idatzian iraganeko *neure*, *heure*, *geure*, *zeure* eren ordain, *ene*, *hire*, *gure*, *zure* aldaera ez hanpatuak nagusitu ziren, baina *nerre* aldaeraren ñabardura eginik: Duvoisin, Hiribarren, J.-B. Elizanburu, Duhalde, Jean Hiriart-Urruti zaharrena lanetan edo M. Ariztiaren 1934ko ipuinetan ageri da *nerre*. Aldiz, ez dakigu «gere» edo «zere» aldaerak zenbateraino baliatu ziren XIX. mendeko Lapurdin, ez dira ageri, nahiz Bonaparterentzat idatzi ziren katiximetan Zugarramurdikoan *zere* ageri den. Lapurdikoetan *geonen* dakar Arrangoitzekoak eta Ainhoakoak *geurren* & *georren*. Arrangoitzekoaren itzultzailea Duvoisin izan zen eta Ainhoakoarena ere Duvoisin dela pentsatzen dute argitaratzaileek; cf. Pagola et alii (1994: 318).

3.3. Baxenabarreko eskualde gehienetan egun Linschmann-Aresti legea ez da iraganean bezain tinko gauzatzen, baina gai honi genitiboko izenordain indartuko *neure*, *heure*, *geure*, *xeure*, *zeure* aldaeren galera gurutzatu zaio; konparazione, Baxenabarreko Arberoa adibide neutroak entzuten dira egun: *ene baitan ukhan dut gogoan, pentsaketan* (Armendaritze); *ene baitaik* (Mehaine), zeinak adibidez, aldaera indartuan balia daitezkeen egun Aezkoan, Garazi ondoan, *eu* → *au* fonetismoaren bitartez: *erraten nue naure beitan* (Abaurregaina), nahiz aldaera ez hanpatuak ere entzun daitezkeen aetzen ahotik: *manatzen dute gure beitan* (Abaurregaina); *ene baitan* (Hiriberri).

Iparreko Baxenabarren antzina aldaera hanpatuak ageri ziren Amikuzen: Lukuzeko jaun Charlesen alabarena bide den XVI. mende bukaerako gutuneko *suplicazen nizaucu auctore pareba nahi derautacun cherkatu neure duhuruian* dugu erakusgarri (Floristán Imízcoz 1993: 204), *neure* dakarrena, baina egungo Amikuzen ez dut *neure*, *heure*, *geure*, *zeure* sail hanpatuaren herexarik aurkitu. Hanpatuen ordain aldaera arruntak ager daitezke: *eskola, eliza ta étxea, hori, hiru gauzak bethi ene bihotzean ekharri ituztanak* (Bithiriña); *nik baut ene gi[é]ako debozionia Ama Ber[3]inan* (Behauze). Nolanahi ere

den, agertzekotan, “guhaur-en” bezalako era “berri”-agoan agertuko zaizkigu aldaera hanpatuak: *e, e, e, guhaun behiekilan, hiru pare heikilan ^eiten; bi behi parek idi pare atena iten tzikezien* (Arrüeta); *oihana, guk e undoan dizi oi^hana gurea oiana, ba, guhauna* (Arberatze). «Berriak» direlako testuen kronologian oinarri harturik adieraz daiteke, Baxenabarreko eskualde batzuetako izenordain hanpatuen morfologian, **gu-haur-e* → *geure* higadura foniko zaharraren ondotik, berriz ere forma osatu eta hiztunak *guhaur-en* erako aldaeretara lerratu direla dirudielako.

Lapurdiri hurbil, genitiboan *nic nere* eta *zuec niry nere* dakar Bidarraiko 1808ko gutun batek eta herri eta urte bereko beste batek *neri* datiboa (Ondarra 1981: 478-479). Aldiz, ondoko Orzaizen *nic neure partetic deffendiatuco naiz neure ahaliaz* dakar 1792ko gutun batek (Donostia 1934: 689). Lacombe Alduden XX. mendearen hasieran bildua da xiberotar baten ahoan ezarri esaldi hau: “Eztut gero neurekin. Ukhaiten dudaneko ari niz” (1971-72: 41). Ez da xiberotarra karakterizatzeko egin, izan ere, Zuberoan ez da honelakorik ibiltzen eta Baigorrialdean ez dakit Lacomberen garaiko 1911n honelakorik ibiltzen ote zen, ez jakin. Bonaparteren idazkietan *nihaun, guhauren & guhaun, zuhaun* eta *zihaun* ‘zeuen’ aldaera hanpatuak ditugu Baigorrialdean, baina «neure» erakorik ez, Uztaritzen ageri da *neure* bakarra eskualdeko Bonaparteren katiximetan.

Amikuzepeko Oztibarren Xarles Videgainek XX. mendearen bukaeran bildu datuetan ere ez da «neure», «heure», «geure», «zeure» erako aldaera zaharrik batere ageri (1989), baina ondoko Garazi ibarrean ez da Baxenabarre gehienean bezala gertatu, izenordainetan genitiboaren aldaera hanpatu zaharrak gorde dira, horregatik uste dut, Lapurdiko eta Baxenabarre gehieneko orduko tradizioko aldaera ez hanpatuak erabiltzean, Arbelbide zaroarrak *harri horren gainean asentatuko dut ene Eliza* adibidean bere eskualdeko ezaugarri zahar bat ezkutatu zukeela. Bonaparteren garaiko Garaziko testuak lekuko dira eta egun ere garaztarrek izenordain genitibo hanpatu diptongodunak erabiltzen dituzte; hona Ahatsako adibide batzuk:

ez, ez, e, bua, zeure heñekoa artzen duzu, geo belarra ezta pizu, e, idortia delaik

ba, hori da, ba... bo, zeure ustez iten duzu, e, lana, banan ez denen gusturat

ta jendiak... lupertzen ‘aienatzen’ zeure aintzinian

zoaza zeure oerat

Eta agertu zait *neure* aldaera ere Ahatsan; berebat, Ezterenzubin *neure eskuara* entzun dut eta Luzaideko gutun batek *xeure* dakar: *pentsatzen dixit engontik xeure mueble hon bea* (Kamino & Salaberri 2007: 20). Hegoaldeko Baxenabarren izenordain genitibo hanpatuen aldaerek Garazin iraun dute, baina Baigorrialdean ez, eskualde honetan *niauren* edo *ene* gisako genitiboak ibiltzen dira, ez «neure, geure, zeure» erakorik.

Nolanahi ere den, izenordain genitibo hanpatuen *eu* diptongoaren bilakaeraz bada Baxenabarreko ekialdean ilungune filologiko ttipi bat. Xarles Videgainek Oztibarren bildu datuetan ez da «neure», «geure»... saila ageri (1989), ezta «nere», «gere» monoportogatuaren adibiderik ere, baina eskualde horretakoak izan daitezkeen 1913, 1916 eta 1918ko gutun batzuetan *nere*-ren adibideak ageri dira (Kamino & Salaberri 2004: 106-112). Nik segurik ez dut Garazin «gere» edo «zere»-ren adibiderik ezagutzen, baina Bourciezen Ahatsa-Altzieta-Bazkazaneko itzulpenean *yoanen niz nere aitaren ganat* dakar Oilloquy izeneko irakasleak (Aurrekoetxea & Videgain 2004: 190), eta itzulpenak badu Garaziko moldean eman izanaren itxura. Bestalde, Arbelbide zaroarraren lan idatzietan nagusi da *nere* aldaera hau. Nola daiteke egungo genitibo hanpatuetan *eu* diptongoari eutsi dion Garaziko idazkietan *nere* aldaeraren ale bat agertzea, horren kide «gere» eta «zere»-ren alerik izan gabe? Idatziaren bidezko eragin literarioak azal dezake *nere* aldaera Garazin,

bestela ziurrenik jende garaztarraren ahoan iraunen bailuke *nere*-k, baina ahozkoan ez da ageri, *neure* ibiltzen dute egun ere; aldiz, adierazi dudan bezala, XIX. mendeko Lapurdiko idazkietan indarrez ageri da *nere*, Duvoisin, Hiribarren, J.-B. Elizanburu, Mixel Elizanburu, Duhalde edo Hiriart-Urruti idazleen lanetan, konparazione.

4. **eradun* oinarriko adizki osoagoak eta soilagoak

4.1. Ibilera historiko-geografikoa

4.1.1. Hizkuntzan gertatzen diren prozesu historikoak ez dira beti nahi bezain argi eta garden ageri gure begien aitzinean, testu idatzietako emaitzak interpretatzean ez ditzakegu nahi bezain iritzi kategorikoak ukan. Joera nagusiak identifikatzeko gai izanik ere, datuek ez digute beti aukerarik ematen urrats guztien deskripzio xehe eta egiantzekoa egiteko, ez dugu gure hipotesiak frogatzeko edo infirmatzeko guztizko baliabiderik, lausotasun eta zalantza guneak gelditzen dira azterketaren ondotik ere.

Arestian aipatu ditudan Etxamendik eta Arbelbidek XIX. mendearen bukaeran Garazin idatzi zituzten aldaera batzuk ez ziren “ez Garaziko” bakarrik. Beste mintzo batzuei mailegaturik zerabiltzaten aldaera zenbait galdurik egon zitezkeen orduko haien sorburuko eskualdean, era haietarik batzuk bederen ez ziren orduko Ipar Euskal Herriko ahozko euskararen atalak, liburuen bidez zirauten era supralokalak baizik, literaturan nolabaiteko ospea bereganaturik eta ibilera kurriturik zutenak. Gaiaz adibide argi bat aurkeztekotan, hona Arbelbide zaroarraren liburutik harturikako perpaus bat: *zuri emanen darozkitzut zeruetako erresumaren gakhoak* (188). Era honetako *-aro-* aldaerak XIX. mendearen bukaeran idazlearen sorterriko Garazin ala Lapurdin zinez baliatzen ote ziren adieraziko dut ondoko ataletan, baina lehenik **eradun* oinarriko adizkiek euskal idazle goiztiarren lanetan zein egitura zuten aurkeztuko dut eta bereziki, zer nolako bilakabide fonikoak jasan zituzten ondotik Ipar Euskal Herrian.

4.1.2. Ezker *d-/z-/l-* dutelarik, hiru bokal ageri dira **eradun* oinarriko adizkietan: *-erau-*, *-arau-* eta *-irau-*. Alokutiboetan *-irau-* aldaera ageri da: Leizarragak *dirauzteat* ‘zizkieat’ dakar, Etxauzek 1584ko gutunean *dirauztazu* ‘dizkit’, eta XIX-an Garaziko itzulpen batean Cazenavek *diakozie* ‘diote’ dakar, baina osagarri pluraleko sailean alokutiboa ez den *dirauz-* dago Gipuzkoan, XVIII. mendea arte ageri da eta aski aldaera osoak dira. Otxoa Arin ordiziarrak subjektua lehen pertsona duen *diutzudan* ‘dizkizudan’ dakar, *r* galdurik, baina beste pertsonetan aldaera osoak darabiltza: *dirauztan*, *dirautza*, *dirauzku* / *dirauzkagun* / *dirauztazula*. Aldiz, XVII. mendearen hasieran *-erau-* erakoak zekartzan Joan Perez Lazarragak Arabako lautadan: *deraustezu* edo *deraustae*.

Bokal arteko *r* edo haren ondoko bokala galtzeak eragiten duen soiltzearen ibilera historiko-geografikoa aurkeztuko dut llabur. Nafarroan osorik daude **eradun*-en adizkiak XVI. mendean: Beorburuko 1536ko edo Olatzagutiko 1548ko ezkon-zinetan *derauçut* ageri da formulatan, eta formula izanik pentsa liteke gordetzaile direla ere, baina galduz eta soilduz joan ziren gero aldaerok, izan ere *drauco* ‘ematen dio’, *eman draue* ‘eman die’ dakartza 1609an Iruñean saritu olerki batek eta Beriainek *ematen drauan* ‘ematen dian’. *Muta cum liquida* emaitza dakarren sinkopa honek Leizarraga beskoiztarraren *drauat* & *drauzkiat* / *drautak* & *drauztak* & *drauzkidak*, *draukuk* / *draut*, *drauka* / *drauzugu* / *draukazu* / *draudate*... aldaerak dakartza gogora; Lapurdiko Beskoitzen, gainera, bokal sinkopa bortitzak agertuko dira XX. mendeko lekukotasun dialektaletan (Duhau 1993: 19). Tartas zuberotarrak ere aldaera sinkopadun hauen ale batzuk dakartza eta ezagunak ziren Zalgize eta Oihenartenez landa, Gabriel Etxart legegizon zuberotarraren XVII. mende hasierako gutunetan ere badira adibideak (Padilla 2017: 473).

4.2. Ipar Euskal Herriko berri xehea

4.2.1. Jarraian Ipar Euskal Herriko aldaeren bilakabidea aurkeztuko dut. Baxenabarren Etxeparek **eradun*-en adizkietan *-erau-* eredia darabil XVI. mendearen erdialdean: *deraut / deraudazu...*, eta Charles Lukuzekoaren alaba egile izan dezakeen gutun batean ere *derauzut / deraut / derautazun* adibideak ditugu 1595ean. Alta, Etxeparek berak *-arau-* eredia darabil ere: *daraut, daraiela / darautazu / daraukate*; izan ere, Bertran Etxauz baxenabartarraren 1584ko gutunean ageri den eredu bera da: *daracodala, darauçut / deraudala*. Aldaera iduriak ditugu 1651n Olce apezpikuaren aginduz Baionako elizbarrutirako argitaratu zen *Pregariac* izeneko idazkian, Nafarroa Behereko bertsiotzat jotzen den horretan: *daracot, darauciet & darauzquiciet / baitaraucu & darauzquiula & darauzquigu & darozquigu, darauzquicien, daraen*; eta subjektu pluraletan, berriz: *daracogu & daratçogun, daroztegu / daragute*. 1651ko testu honetan eta ondokoetan ohikoa da Lapurdin datiboa hirugarren pertsona denean **eradun* ez, *-i- erroa erabiltzea, testu honetako *diogu & diotçagun / diociela & diotçatcie* lekuko, baina **eradun* saileko adizkien forma aztertzea da orain ene helburua. **eradun*-en aldaera monoptongatu *darozkigu* eta *daroztegu* horien erako formak Lapurdin ageri dira XVII. menderako eta geroztik ohikoak izan dira liburu idatzietan nahiz herri xeheak idatzi gutunetan.

4.2.2. Endemikoa da zuberotarren bokalen garapena, *-erau- > -erai- > -erei- > -eri- > -ei- > -i-* bilakabidea gauzatu dutela dirudi. Xiberoan goiztar gertatu ziren soiltze nagusienak, XVIII. mendearen erdialderako. *Pronus-ek* (1676) —*eracaxi dericunian* (20), *eracasten derizquien* ‘dizkiguten’ (25)—, Belapeirek (1696) eta Oloroeko kateximak (1706) dagoeneko *-eri-* eskema monoptongaturik darabilte, baina XVIII. mendearen erdirako galdurik dago *r* Maisterren lanean (1757): *deiot, deizüt / deitadala, deio, deikü, deizü, deie / deiogü / deitazü, deiozü, deiezüna / deitaden, deikiela*; ordea, cf. *derenek*.³ Lehenagoko *-erei-* egituraren adibide apur batzuk gelditzen dira idazkietan: Belapeirek *contu honic eztereyocie emanen dakar* (25) eta 1734ko *Othoitce eta cantica espiritualak-esker dereiçut, Jauna* (32) edo *placerez dereit edukiten sasituric gogoua* (87).

4.2.3. Baxenabarreko euskal testu zaharretan hiatus handia dago XVI-XVIII. mendeen artean, ez baita kasik XVII. mendeko testu dei daitekeen deus. 1740 urtearen inguruan kokatu ohi da Luis-Maria de Suarez d’Aulan Akizeko apezpikuak eginarazi katixima, Pauen argitaratu zena, baina dakarren data bakarra apezpikuaren *manamendia*-ri dagokio, liburuak ez du argitalpen datarik. Idazki honetan aldaera soilak nagusi dira: *baitaut, daucuna, dee / deztegun / dautaçula / dacote, deete*; dena den, egitura osoagoaren lekuko *daraucun* ere ageri da (12). Norbaitek susma lezake testuko aldaera ugarietak soilduak izate hori, katixima *manamendia* idatzi ondotik izkiriatu izanaren ondorio izan litekeela, liburu 1740 urtearen ondotik idatzi izanarena, baina ez dago hori honela dela frogatzeko biderik, edo nik segurik ez dut ezagutzen. Garai beretsuan, 1750 inguruan datatzen du Manuel Padillak Lapurdi eta Baxenabarre bitarteko mugaren ondoan kokatua den Hazparneko *Kadet eta Bettiriño* izeneko idazkia eta soildurik eta laburturik daude bertako aldaerak ere orduko: *dacon, baitacon & zangolaric / dacoten, zacotelaric*.

1782an argitaratu zen Lopez oztibartarrak ondu Alphonsa Rodriguez-en euskal itzulpena; bertan aldaera osoagoek kopuru handia egiten dute: *derako & deako, derauku & deraugula & deragu, derauzien, deree / derakotela, deraugute & deragute*; baina aldaera laburragoak ere badira testuan: *daukularik / daukutela*. Garai beretsukoa da

³ Adizkiaren luzeragatik edo azentuazio baldintzengatik luzaz iraun dezake *r*-ak bokal artean: Olatzagutian *derot* ‘diot’, *derogu, derozu, neron* ‘nion’, *genderon* ‘genion’ erakoak ibili dira oraino XX. mende bukaeran.

Frantziako iraultzaileek Eliza katolikoarekin 1790ean zuten gatazkari buruzko agiri bat, Garaziko Bazkazanen agertua. Hazparneko mende Erdiko testuak bezala, soildurik dakartza adizkiak honek ere: *dako & dazko, zakon, dauku & dauzkigu, dauzkizien, zeela / dauziegu / dazkote, daukute*. Aldaera laburrak ageri dira 1792an Orzaizeko gutunean —*dautçudan & daco* (Donostia 1934: 689)—, baina Montevideotik Arnegiko Ondarrolara 1841ean igorri gutun batean *ygortcen darozuet* dugu, nahiz *derat* eta *dazconic* laburragoak ere badiren (Satrustegi 1971: 293) eta 1893an Uruguaitik Ondarrolara igorri beste batean *dautçugu* eta *dautçu* laburrak ditugu (Kamino & Salaberri 2006: 99); Luzaideko 1904ko batean *zinakon*. Garaziko euskara aurkeztu nahiz XIX. mendean Bonapartek Cazenaveri eginarazi itzulpenean ere aldaera soilduak daude Donibaneko katiximan: *dakota?*, *dauzkitzut / daut & daana, dakola, dauku & daun, dauzu, dauzie / dauzugu & dauzun & tauzuu, dauzieu / daazula, baiteezu / daazie, dazkotzie / dauziete, baiteete*.

Baxenabarreko datuak ikusirik, Suarez d’Aulanek inprimarazi *catichima*-k, 1740ko eliz-onespena duenak, 1790ko Garaziko agiriak eta mende Erdiko Baxenabarre ondoko Hazparneko testuak iradokitzen digute ziur aski XVIII. mendearen Erdialdeko Baxenabarren eta ingurumarietan soilteza gauzaturik zegoela, baina Alphonsa Rodriguezen itzulpenak ikuspegi hau amiñi bat lausotzen du, aldaera osoen kopuru handia dakarrelako 1782an eta guti direlako bertan aldaera soilduak. Halaz ere, filologoa lerra liteke pentsatzera Lapurdin baino, aldaera soilduak Baxenabarren lehenagokoak direla; hurranen lerroetan azalduko dut uste edo aurreuste hau zertan oinarritu litekeen.

4.3. Lapurdiko berri

4.3.1. XVII. mendeko idazle lapurtarren liburuetan *-erau-* osoagoko aldaerak ibiltzen ziren (Mattera, Axular, Harizmendi), baina Etxeberri Ziburukoak, Harizmendik berak eta Argainaratzek erakusten digute *-arau-* > *-aro-* monoptongazioa XVII. ean berean gauzaturik zegoela; ondotik XVIII-an Xuriok ere *-aro-* era hau zerabilen. Lapurdiko liburuetakoa era idatziei so bat eginez gero, pentsa liteke aldaera osoagoek luzazago iraun zutela Lapurdi aldean Baxenabarren baino, lapurtarrek baino lehenago soildu zituztela baxenabartarrek *derauko / darauko* erako aldaerak → *dauko* edo *dako* moldeetara; bestalde, Lapurdiko *derauka* aldaera guztiz galdu zela dirudi. Ikus ditzagun datuak:

Herri xehearen ahotik hurbil zeuden aldaerak itxaron ditzakegu Urruñako 1680ko gutunetan eta *-aro-* dakarte: *darocu / daroçuegu & darotzubegoun / darocouten*. Testu idatziei so eginez gero, XVIII. mendean egiturak Lapurdin aski osorik jarraitzen duela dirudi. Haraneder donibandarraren 1740ko ebanjelioa baliatzen ahal dugu lehen Erdiko berri ukaiteko: *darotçuet, darozquitçuetet, daroedana / daroe, çaroen*.⁴ XVIII. mendeko bigarren Erdian literatura lanetan Bernard Larregi (1775, 1777) eta Alexandre Mihura donibandarrak (1778) eta André Baratzart lapurtarra (1784)⁵ egitura osoagoak idazten ari ziren aldetik, XVIII-an baxenabartarrek soildurik zituzten aldaerak Lapurdin oraino

⁴ Hirugarren pertsona singularreko datiboan **-i-* sailekoak dakartza: *dioçça* ‘dizkio’, *cioen* ‘zion’ & *ciozcan*.

⁵ 1784an argitaratu zuen Baionan Baratzartek *Guiristinoqui bicitceco eta hiltceco moldea...* Duvoisin eskuzkribu bati esker dakigu 1743an Duranan jaiorik, aitak bere sorteri Larresorora eraman zuela eta bertako apaizgaitegian ikasi zuela, 1767an apezte zela, erbestetik itzultzean Uztaritzen eta Baionan egon zela eta 1826an hil zela. Duvoisinek dioenez, “a la pureté du langage des Labourdins de la côte, il joint le ton plus énergique des Labourdins orientaux” (Altuna 1987: 82). Villasantek dakarrenez (1979: 113) Daranatzek dio ezen “este libro cumple a maravilla la primera condición pregonada por las obras de nuestros autores vascos, la de unir la amplitud y la firmeza del dialecto labortano al aticismo y a la delicadeza del subdialecto kostatar “costeño”. Eta Villasantek berak dio ezen “Baratziart excluye, por una parte, el abuso de las letras mojadas *ll* y *ñ*, que quitan al lenguaje algo de su nobleza y de su dignidad; por otra, le conserva su vigor y energía natural por el empleo de las aspiradas” (113).

egitura osoagoan zirautela pentsa daiteke. XVIII. mendearen erdialderako soiltze gogorra gauzaturik behar zuen **eradun* adizkietan Ipar Euskal Herriko barnealdean, hala Xiberoan nola Baxenabarren, nahiz eskualde batean eta bestean gertakariaren nondik norakoak desberdinak ziren; hartara, pentsa liteke aldaera osoenek Ipar Euskal Herriko barrenetik urrunen dagoen eskualdean iraun zezaketela, Lapurdiko itsas-hegian, hain zuzen ere. Ondotik ikusiko dugu ea honela izan ote zen.

Duvoisin kapitain ainhoarrak (1810-1891) -*aro*- erako aldaera osoagoak zerabiltzan XIX. mendean oraino.⁶ Idazle jantzia zen kapitain ainhoarra, hizkuntza zinez zaintzen zuen Duvoisinek: Larresoroko apaizgaitegian ikasle bikaintzat zuten eta Lore Jokoetan literatur-lanen epaimahaiko partaide zen; halaber, Hiriart-Urrutik zioen Duvoisinen *Laborantzako liburua*-k eman edo eragin ziola herriko euskararen gostua (Lafitte 1971: 39). Hizkuntzaren kalitateaz interes handia erakusten zuen ainhoarrak adizki-aldaera osoagoak edo tradiziokoagoak lehenesteko joera edukitzea ez litzateke, beraz, harritzeko. Eta harena ez da joera pertsonal hutsa, J.-B. Elizanburu saratarrak 1889ko *Piarres Adame* elaberrian era bereko adizkiak baliatu zituen: *daroyat & darozkiat / darotak / darot & zarotan, zarotak, zarozkigun, darotzu / zarotatek*. Aldiz, XIX. mendeko Duvoisinen urte berean sortu zen Hiribarren azkaindarrak -*au*- egitura soildua darabil gehienik —*dautzudan / dauku, dautzue / dautedana* ‘didatena’—, nahiz baduen *deraut* ‘dit’ osoagoa ere. Aldaera luzeago eta laburragoen bikoiztasun honek XIX. mendean **eradun* adizkietan Lapurdin polimorfismoa zegoela iradokitzen digu; aldea idazleen ingurumariko aldaera geografiko-dialektaletan zetzan, ala Duvoisin edo J.-B. Elizanburu bezalakoek idazmoldea gordetzaila ote zen? Argitasun gehiago nahi baldin bada XVIII. mendeko Lapurdiko testu gehiagoren bila jo beharko da.

4.3.2. XVIII. mendearen erdialdean **eradun* adizkien higadura Baxenabarren Lapurdin baino aitzinatuago zegoelako aurreustea literaturak eragina dela jabetu naiz. Tradizio idatziak ez ditu Garaziko Arbelbide apeza eta M. Etxamendi bertsularia bakarrik kutsatu, filologoa ere kutsa lezake egin beharreko frogak egiten ez baditu. Ordea, **eradun*-en aldaera osoagoek Lapurdin noiz arte iraun zuten jakitea ere ez da aise.

Arbelbide garaztarraren 1890ko arestiko *darozkitzut* adizkia dugu begiz joa: zer dakigu **eradun* adizkien -*aro*- aldaera horietaz? Lapurdiko itsas-hegiko bi idazle ez hain ezagunen jardunak adierazten digu XVIII. mendearen bigarren erdialderako eskualde horretan aldaerak berrizaturik zeudela: *Jean Dauphin cenaren eritassuneco circunstancia berecien errelacionea haren confessorac arguitarat emana* izeneko liburuan (Baiona, 1766) aldaera soilduak ditugu: *baidautzut, dautzuet / daut & dautzkit, zautan & zauzkidan / dautazuen*; aldiz, esker emateko formularen aldaera osoagoa iharturik dago: *eskerrak darozkitzuet*, zeina testu bereko *dautzuet* soilagoarekin aldera bailiteke.⁷ Jean Robin (1739-1821) koblakari donibandarrak ere aldaera soilduak dakartza: *esker dautzut / dautzu hornituko / ematen dautzute*.

4.3.3. Herri xumearen mintzoa eta honen ahoskerak eta jokaerak literatura idatziak baino hobeki isla ditzaketen jende xehearen gutunei so egitea komeni da, eta zorionez, Lapurdiko herrietako XVII, XVIII eta XIX. mendeetako gutunak ditugu eskueran: arestian ikusi ditugu Urruñako 1680-ko ale batzuk. Lapurdiko bi idazle ez hain ezagun horiek beren

⁶ 1856ko *Liburu ederra* itzulpenean, 1857ko elhestaldietan, 1858ko *Laborantzako liburu*-ko solasetan, *Jaun Done Joani apostoluaren apokalipza*-ren itzulpenean..., baina *Yaundoni Yohane apostoluaren apokalipsa*-n aldaera osoagoak nahiz soilduagoak dakartza: *darotzut, darozkitzut, darotzuet*, osoagoen artean eta *dauzkitzut* / *badaut* higatuagoetan; ia izen bera duen bigarren itzulpen hau ere letraren arabera baliteke Duvoisinekin egin izatea (Pagola et alii 1994: 231). On Kixoteren itzulpenean ere bi erak eman zituen: *narotzuen* (Jauregi 2015: 198), *darot* ‘dit’ (184), baina baita soilagoko *nautzukeen* (184) ere.

⁷ Vinsonek ezohikotzat dakar bederatzirri orrialdeko itzulpen lan hau; ez zuen jatorrizko testua ikustea lortu.

lana idatzi baino urte batzuk lehenago, 1757an Lapurdi itsas-hegitik Ameriketara abiatu zen *Le Dauphin* itsasontzia; bertatik Londresen berreskuratu diren gutunen berri eman du Baionako Iker erakundeak; cf. *Othoi çato etchera* (Lamikiz, Padilla, Videgain 2015).

Le Dauphin-eko gutunek itsas-hegian garai hartan zein aldaera ibiltzen zen erakusten dute; aldaera osoagoak eta bilakaera jasan duten soilduagoak ageri dira horietan:

- *darotzut & darozkitzut & darozkitzudan, darotzuet / darot, darotzu / darozkizugu, darotzuegu / darotazu, darokuzun & darozkigutzun / darokute*; iraganean *narotzun / zarotan, zarokun / zinerotala & baitzinarotan & zinarozkidan & zinerozkidan*
- *dautzut & dautzudan & dauzkitzut, daunat & dauzkinat / daut & baitaut / dauku & dauzkigu, dautzu / dautzugu / dautazula & dauzkidatzun, daukuzuna / dautedatela, daukute, dautzute*; iraganean *naunan, nauzkitzun / zautalarik, zaukinala, baitzaukun, zauzkitzun / ziñautan & ziñozkidanak, ziñoizkan*

Bilakatuago daude oraino Baionatik igorri zen gutuneko *dotzut, dotazu / notzula* eta *nozkitzula*; hauen kide da Hendaiatik igorri gutun bateko *dozkitzut*.

Ziburuko gutun bateko formularen berriz, aldaera soildua ageri da: *guciec milla gorainsi dautçute*.

Le Dauphin itsasontziko 1757ko datu idatziak ikusirik —Urruña eta Ahetze herrietako gutun guti dago—, honela laburbil dezakegu dakarten informazioa:

-*aro*- anitz ageri da Getarian, Senperen eta Saran, eta gainera, ez dago herririk gutunetan -*aro*- egitura baliatzen ez duenik, herri guztietakoa da -*aro*-

-*au*- aldaera soildua anitz ageri da Ziburun eta Donibane-Lohizunen eta usu Azkainen, Getarian eta Bidarten

Sara herrian ez da -*au*- egitura ageri

Ondoko urteetako gutunetan ere ageri da polimorfismo hau: bazka aferez diharduten Sarakoetan *darotçuet* dugu 1769an (Donostia 1934: 693), *darocularic* 1773an (Zudaire 1968: 378) eta *darozuet* 1776an (379). Aldaera laburragoak ageri dira 1807an Itsasun: *dautaçun* (Donostia 1934: 694), baina Baztango Arizkunen Dominica de Larrondok *darozut* dakar 1777an (691). Berako udalari 1788an igorri gutun batzuetan, *daut* ageri da Donibane-Lohizunen idatzirik (Satrustegi 1986: 139) eta beste batean *daucu* (136), baina Urruñan 1788an idazten den batean *darocuçu* eta *darosquitçu* osoagoak (Irigarai 1972: 347). 1815ean Urruñatik Pasaiara igorri gutun batean aldaera laburtuak ditugu *nautçun* eta *cinnautan* —“ziñautan” ulertu behar da, *duçuinno*, *ohoinnaren* edo *ceinna*-ren bide beretik—, baina bada garbi ez dagoen *dazusquitçut* aldaera ere, Fausto Arozenaren transkripzioan (1958: 146). Nolanahi ere den, Urruñako datuen bikoiztasunak XIX. mendearen erdialdeko gutun batzuetan dirau: Kanada ondoko Frantziapeko uharte batzuetara Lapurdiko itsas-hegitik XIX. mendean idatzi gutunetan aldaera soilduak ageri dira (Egaña 1998) —*dausut & dausquisut* (Ziburu 1845, 497. or.) / *çaosquigun* (Urruña 1845, 495) / *dausquitçugu* (Urruña 1845, 495)—, baina oraino soildu gabekoekin batean. Urruñako 1844ko gutun bateko *darozquiat* (494) eta 1846ko beste bateko *darosquitzut* (495, 496) gutunaren hasieran daude hirurak, eta beraz formula ihartutzat har genitzake, baina gutun horietan badira *r* duten adibide osoagoak ere, hasierako formularen ez, gutunaren erdian kokaturik: *darocu* (495), *darosquitzu* (494). Joxemiel Barandiaranek ere aldaera zaharra lamien dialektoa omen denean bildu zuen Zugarramurdin 1941ean: *Nork egin derauk?* (Irizar 1997: 157).

4.3.4. 1860 inguruan Bonapartek Lapurdin eginarazi edo itzularazi idazkietan eta berak bildu adizkietan ageri den errealitateak ez du XIX. mendearen erdiko Urruña eta Ziburuko gutun xumeagoek erakusten diguten bikoiztasun hura islatzen. Hiribarren idazle azkaindarrak aldaera soilduak dakartza eta aldiz, Duvoisin ainhoarraren itzulpenek *-aro-* ereduak, baina aldiz, Bonaparterentzat itzuli Donibane-Lohizuneko eta Ainhoako katiximek *-au-* dakarte. Donibanen *daukun & zaukun, dauzkigu* soilduak ageri zazkigu eta Ainhoan *dautzut & dauzkitzut / daukun, dauzku, dautzun / dauzkitzuu / dautazula* erak; silaben aldetik luzeago den aldaeran *u* gabekoa da Ainhoako *dazkidatzula*.⁸

Bonaparteren uztako Sarako katixima Leonce Goietxe urruñarrak itzuli zuen eta *-ao-* dakar gehienik *—arau > aro > ao—*: *daotzut & daoizkitzut / daokun & daoizkigu & zaokun / daoizkitzugu / daoizkitatzu*; soildurik dakar *dazkidatzula* ere, nahiz badakarren *darozkitzut* adibide osoagoko bat. Eta behin *dautazula* dakar. Jakingarri da Bonapartek testuan *daotzun* → *dootzun* erako aldaketak egin zituela, *-ao-* → *-oo-* norabidean, izan ere, hark bildu aldaeretan *-oo-* ageri da Saran: *dootzut / doot & zootak / dookuzu & doozkiutzu / doote*. Egun ez da Saran *-oo-* sekuentziarik ibiltzen, baina Schuchardten lekuko Augustin Etxeberri bazerabilen: *dootzut / dooku & zookun / dookute, zookidaten*.⁹

Ttap galdu ondoko egoeraren bi aldaera mota ageri dira Arrangoitzeko katiximan, *-au-* eta *-a-* erak: *dautzut & dauzkitzut...*, baina baita *dazkitzut / dazkiu / dazkidatzula* era soilduena ere; baita Zugarramurdikoan ere: *dazquitzut / dazquidazula*. Aldiz, Bonapartek *daut* ‘dit’ dakar Ahetze, Ainhoa eta Zugarramurdiko adizkietan, Urdazubi eta Arbonan *dat* eta Alkerdi auzoan *daat*; Arrangoitzen *dat & daat*.

4.3.5. Datiboa hirugarren pertsona ez den kasuetan garai hartan *edun* aditzek **eradun*-i lekua kendu zioten Lapurdiko itsas-hegian eta ingurumarietan. Bonapartek berak *nau* ‘dit’ erakoak bildu zituen Getaria, Donibane-Lohizune, Ahetze, Ainhoa, Urdazubi edo Zugarramurdin. Haren garaian adizki tripertsonalak ibiltzen ziren Saran; baita Schuchardten garaian ere eta honek zioenez emaztekiei bipertsonalak entzuten zizkien (1992 [1922]: 266). Barandiaran Saran izan zenean (1947) aldaera tripertsonal bakan batzuk baizik ez ziren entzuten eta egun bipertsonalak baliatzen dira: *zaitut* ‘dizut’, *zaiizkitzut* ‘dizkizut’, *nintutzun* ‘zenizkidan’ (Irizar 1997: 56-62) eta halaxe da inguruko herrietan ere: Bidarten, Getarian, Arbonan, Donibane-Lohizunen, Ahetzen, Biriatur, Hendaian, Urruñan, Azkainen, Senperen, Ainhoan...; Arrangoitzen maila apalagoan.

4.3.6. Emaizton arabera zer aipa daiteke **eradun*-ek Lapurdin jasan zuen soiltzeaz?

4.3.6.1. Literatura idatziak (Duhalde, Mihura, Baratzart, J.-B. Elizanburu, Duvoisin) filologoari pentsaraz liezaioke Baxenabarren baino, Lapurdin adizki osoagoek luzazago iraun zuketela, baina XVIII. mendeko beste idazle batzuen lanean eta herri xumearen gutunetan aldaera soildu ttap gabeak ditugu XVIII. mendearen erdialdera Lapurdin, nahiz *-aro-* erako adizkiak ere ageri diren, hala herri xehearen gutunetan (batzuetan XIX. mendea arte, Urruñakoak lekuko) nola XVIII eta XIX. mendeetako idazle jantzien lanetan. Jakin nahiko nuke zer den Urruñako herri xehearen gutunek XIX. mendean islatzen dutena: formula ihartuak izan daitezke, baina XIX. mendeko Urruñako gutunetan bokal arteko *r*-ak dirau, literaturaren eraginagatik ala hizkuntza errealean honela delako?; cf. *-aro-* eskema Saran XVIII-an eta *-ao-* ereduak XIX-an; Bonaparteren eskuzko oharretan, gainera, *-ao-* sekuentzia hori *-oo-* bilakatu zen. Gerora ere *-aro-* erako adizki osoagoek

⁸ Ainhoako idazkiaren lehen itzultzailea Louis Marie Hyacinthe Fabre ainhoarra izan zen, baina ez dirudi haren lana Duvoisinen ez printzearen gogoko izan zenik; bigarren itzulpena, ene adibideak biltzeko baliatu dudana, Duvoisinekin egin omen zuen (Pagola et alii 1994: 318).

⁹ Augustin Etxeberri zapatain saratarraren laguntzaz 1887ko udan ikasi zuen euskara Schuchardtek (1992 [1922]: 249). Zapatain olerkari hau Webster, Vinson eta Dodgsonen laguntzaile ere izan zen.

testuetan agertzen jarraitu dute. Maddi Ariztiak honelakoak nahiz laburragoak dakartza 1934an Sarako Manex Lamothe senpertarrari bildu ipuinetan: datiboa “hiri” denean *daoiat* & *daoziat* eta “hik hari” *daok*, baina besteetan osoagoak: *darozkitzut* & *narotzun* & *narozkitzun*, *darotzuet* / *daroku*.

4.3.6.2. Baxenabarretik so eginez gero hala pentsa baliteke ere, **eradun* oinarriko adizkien forma osoagoari dagokionez, ez dirudi Lapurdiko itsas-hegia gordetzaila izan zenik, Lapurdiko hego-mendebalean baino lehenago gertatu zen berrikuntza itsas-hegian. Ainhoarra zen Duvoisin eta haren joera arkaizantea gehiago dirudi idazle jantzia izateari zor zaiola Lapurdiko hego-mendebalean sortua izateari baino, izan ere, Ainhoako Bonaparteren katiximarako Fabrerren itzulpena gaitzetsirik, printzearen gogoko lana egin nahirik *-au-* eredia —ez *-aro-*— eman baitzuen Duvoisinek berak Ainhoako katiximan.

4.3.6.3. Zer esan daiteke Lapurdi ekialdeko Hazparneko datuez? XVIII. mendearen erdialdeko *Kadet eta Bettiriño* idazkiak dakarrenaren arabera, Ipar Euskal Herriko barnealdearekin doa Hazparne, eta bere berrikuntza sortu zuen, gainera: *zangon* ‘zion’ adizkia bezalakoetan barreneko *n* analogikoa dakar, *nk* → *ng* ahostuntzea eta guzti.

4.4. Epilogo

Zaroko Arbelbidek *darozkitzut* idatzi zuen 1890.ean, baina argi dago hori ez zela Garaziko aldaera jatorra eta ez dirudi, gainera, garai hartan Lapurdiko ahozko mintzoan baliatzen zenik ere, izan ere, Bonaparteren garaiko uztak ez dakar honelako aldaerarik itsas-hegiko eskualdean. Dena den, zail da *-aro-* erako aldaera zaharrek XIX. mende erdiko Urruñan zirauten ziurtasunez jakitea. Berebat, aldaera osoagoak Baxenabarren XVIII. mendean zehazki noiz iraungi ziren jakitea ez da aise.

Bibliografia

- Altuna, P., 1987, “Duvoisinen eskuizkribu argitaragabea”, *FLV* 49, 65-95.
- Arbelbide, J.-P., 2004 [1890], *Erlisionea: Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrenak*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- Ariztia, M., 1934, “Leyendas laburdinas / Laburditar ipuñak”, *AEF* 14, 93-129.
- Arozena, F., 1958, “Paper zaarretan begira”, *Egan* 34, 3-6, 145-146.
- Aurrekoetxea, G. & X. Videgain, 2004, *Haur prodigoaren parabola Ipar Euskal Herriko 150 bertsiotan*, *ASJUren gehigarriak* 49, UPV/EHU, Bilbo.
- Berriain, I., 1980 [1621], *Tratacen da nola ençun vear den Meza*, Hordago, Donostia.
- Bonaparte, L.-L., 1991 [1869], *Le verbe basque en tableaux*, in *Opera Omnia Vasconice I*, Euskaltzaindia, Bilbo, 175-442.
- Donostia de, J. A., 1934, “Textos euskéricos del siglo XVIII”, *RIEV* 25, 688-695.
- Duhau, H., 1993, *Hasian hasi. Beskoitzeko heskuara*, Alinea, Donibane-Lohizune.
- Duny-Pétre, P., 1959, “Trois textes folkloriques basques de Basse-Navarre Orientale”, *BAP* 15/1, 47-60.
- Egaña, M., 1998, “1844-1853, lapurteraz idatzitako gutunak”, in *Antoine d’Abbadie 1897-1997. Congrès International. (Hendaye, 1997)*, Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia, Donostia & Bilbo, 493-502.
- Etxeberri, J., 1981 [1669], *Manval devotioenezcoa*, P. Altunaren edizioa, Mensajero, Bilbo.
- Floristán Imízcoz, J. M., 1993, “Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos”, *FLV* 63, 177-219.
- Irigarai, A., 1972, “Cinco cartas eusquéricas del Ayuntamiento de S. J. de Luz al de Vera (de 1788)”, *FLV* 12, 345-351.
- Irizar, P., 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano*, UPV/EHU & Euskaltzaindia, Bilbo.
- Jauregi, O., 2015, “J. Duvoisin On Kixote Mantxakoari ekinez. Itzulpen zirriborroa”, in I. Epelde (arg.), *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun, Lapurdum-en ale bereziak* 3, Baiona, 177-205.
- Kamino, P. & P. Salaberri, 2004, “Nafarroa Behereko hiru eskutitz”, *FLV* 95, 89-113.
- _____, 2006, “Luzaideko eta Ondarrolako hiru gutun”, *FLV* 101, 95-108.
- _____, 2007, *Luzaideko euskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea & Bilbo.
- Lacombe, G., 1971-72, “Notes sur le basque des Aldudes: noms de maisons, mots et récits populaires”, *AEF* 24, 25-44.
- Lafitte, P., 1971, “Aintzin-solasa”, in Jean Hiriart-Urruty, *Mintzaira, aurpegia: gizon!*, Jakin, Oñati, 13-42.
- _____, 1972, *Mañex Etchamendy bertsularia (1873-1960)*, Auspoa liburutegia 109-110, Tolosa.
- Lamikiz, X., M. Padilla & X. Videgain, 2015, *Othoi çato etchera*, *Lapurdum-en ale bereziak* 2, Baiona.
- Oihenart, A., 2003, *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*, P. Altuna & J. A. Mujikaren edizioa, Iker 15, Euskaltzaindia, Bilbo.

- Ondarra, F., 1981, "Hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetako euskal gutun ez-
ezagunak", in *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker 2, Euskaltzaindia, Bilbo, 475-
489.
- Padilla, M., 2010, *Kadet eta Bettiriño edo Yesu Christo eguiazco Yainco Guizonaren bizia
eta heriua laur evanyelista eguiazcuen eta sainduien arabera*, Euskaltzaindia,
Bilbo.
- _____, 2017, *Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa: XVI-XIX. mendeak*, UPV/EHU-
ko doktoretza-tesi argitaragabea.
- Pagola, R. M., E. Alkiza, A. Beola, I. Iribar, J. J. Iribar, 1994, *Bonaparte ondareko
eskuizkribuak. Lapurtera I*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Salaberri Ibarrolakoa, 1856, *Vocabulaire de mots basques bas-navarrais, traduits en
langue française*, Lamaignère, Baiona.
- _____, 1991 [1856], *San Mathiuren ebanyelioa*, in *Opera Omnia Vasconice III*,
Euskaltzaindia, Bilbo, 331-420.
- Sarasola, I., 1983, "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", *ASJU*
17, 69-212.
- Satrustegi, J. M., 1971, "Correspondencia familiar vasca del siglo XIX", *FLV* 9, 291-306.
- _____, 1986, "Correspondencia oficial vasca del siglo XVIII", *FLV* 47, 125-149.
- Schuchardt, H., 1992 [1922], "Sobre el vascuence de Sara (Labort)", *Euskera* 37, 247-
292.
- Tartas, J., 1975 [1666], *Ontsa hiltzeko bidea*, A. Eguzkitzaren edizioa, Jakin, Oñati.
- _____, 1987 [1666], *Ontsa hilceco bidia*, P. Altunaren edizioa, Deustuko Unibertsitatea,
Bilbo.
- Videgain, X., 1989, *Le vocabulaire de l'élevage en Pays d'Ostibarre. Contribution aux
archives de l'oralité basque*, Bordele III unibertsitateko doktoretza-tesi
argitaragabea.
- Villasante, L., 1979, *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, Oñati.
- Xurio, M., 1978 [1788], *Jesu-Christoren imitacionea*, Hordago, Donostia.
- Zudaire, E., 1968, "Correspondencia epistolar facera (siglo XVIII)", *BAP* 24, 3-4, 377-
383.